



KALE-BIDETIK IBILGAILUAK KENDU, GORDAILATU ETA HAUEK IBILGETZEAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA

1. Artikulua

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauak ematen dituen ahalmenei jarraituz, Udal honek kale-bidetik ibilgailuak kendu, gordailatu eta ibilgetzeagatik tasa ezarri eta eskatzen du. Gai hau Zerga Ordenantza honek arautuko du eta aipatutako Foru Arauko 21. art.tik 28. art.ra ezarritakoa beteko du.

2. Artikulua

Ordenantza udalerrri osoan egongo da indarrean.

ZERGA EGITATEA

3. Artikulua

Ordenantza honetan arautzen den ordainarazpenaren objektua da bitarteko pertsonalak eta materialak erabiliz kale-bidetik ibilgailuak kentzea eta garabira lotzea eta baita ibilgailuak horretara zuzenduta dauden lokaletan gordailatzea eta ibilgailua kale-bidean ibilgetzea ere. Hau gerta daiteke norbaitek hala eskatu duelako edo Udaltzaingoaren jardueraren ondorioz, Zigor Kode, Zirkulazio Kode edo indarrean dagoen bestelako legezko edozein xedapen urratzeagatik.

SUBJEKTU PASIBOA

4. Artikulua

1.- Tasaren subjektu pasibo dira, zergadun izaerarekin, martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei Buruzko Foru Arau Orokorrak 34. art.an aipatzen dituen pertsona fisiko, juridiko eta entitateak ordenantza honetan araututako zerbitzu edo udal jarduerak eragiten badiote, onuradunak badira edo eskatzen badituzte.

2.- Jarduera edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragiten diola edo honi aipamen egiten diola ulertuko da berak arrazoitu duenean zuzenean edo zeharka, bere jarduera edo ez-egiteek Udala behartzen dutela ofizioz jarduerak burutzera edo hemen adierazi diren zerbitzuak ematera.

ERANTZULEAK

5. Artikulua

Martxoaren 10eko 2/2005 Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 40. art.an eta ondorengoetan ezarritakoa jarraituko da tributu erantzukizunari dagokionez.

ZERGA ONURAK

6. Artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak ematea, indarrean dauden xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera egingo da.

7. Artikulua

Ibilgailua lapurtu edo bere titularraren borondatearen aurka beste edozelan ibilgailua erabiltzen bada, ibilgailuaren titularrak ez du tasa ordaindu behar izango, beti ere aurkeztutako salaketaren kopia baten bidez gertatutakoa egiaztatzen badu, Udaltzaingoak egin ditzakeen egiaztapenen kaltetan gabe.

ZERGA KUOTA

8. Artikulua

Zerga kuota ordenantza honetako I. Eranskinean agertzen den tarifen kuadroaren arabera zehaztuko da.

SORTZAPENA

9. Artikulua

Zerga egitatea gertatzea dakarten zerbitzu edo jarduera ematea hasten denean, tasa sortuko da eta ordaintzeko beharra hasiko da. Kale-bidetik ibilgailuak kentzen badira, lotze zerbitzua hasi dela ulertuko da horretarako maniobrak hastean.

KUDEAKETA ARAUAK ETA ORDAINKETA BIDEAK

10. Artikulua

1. Ibilgetutako ibilgailua itzultzeko eskatzen denean ordaindu beharko da tasa.

2. Udalbatzaren bulegoetan tasaren zenbatekoa dirutan emanaz ordainduko da tasa. Tasaren autokitapen modua ezartzen da, horretarako dagoen inprimakia erabiliz eta subjektu pasiboak edo honen aurkezleak sinatuta egon behar da. Ordainketa aurkezpen egintza berean egin beharko da. Udaltzaingoak egunero bildutako diru kopurua horretarako irekitako murriztutako kontuan sartuko du eta kopuru hori udal gordailutzarekin kitatuko du.

11. Artikulua

Tasa honen ordaina-razpenak eta kitapenak ez dute salbuesten Zirkulazio Arauen edo Hiri Poliziaren urratzeek ekar ditzaketen zehapenak ezartzetik.

12. Artikulua

Horretara zuzenduta dauden lokaletan gordailatutako ibil-gailuak esleituko ditu Udalak, kale-bidetik ibilgailuak kendu eta bertan behera utzitako ibilgailuen gordailuari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

13. Artikulua

Zerga arau-hausteak kalifikatu eta dagozkion zehapenak jartzeari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Tributu Foru Arau Orokorrak xedatutakoa jarraituko da.

INDARRALDIA ETA ONARPENA

Ordenantza hau, Eranskina barne, 2002eko apirilaren 30ean egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartu zuen Udalak hasieran eta behin-betiko 2002eko urriaren 10ean. Ondoren, aldatu zen, 2004eko urriaren 13an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran lehengoz eta bigarrenez 2005eko urriaren 14an egin zen Ezohizko Osoko Bilkuran hasiera batean eta behin-betiko 2005eko abenduaren 23an.

Aldaketa hau 2006ko irailaren 27an egin zen Ohizko Osoko Bilkuran onartu zen hasiera batean eta behin-betiko 2006ko azaroaren 21an. 2.007eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta horrela jarraituko du harik eta bera aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I ERANSKINA TARIFAK

1.- Kale-bidetik ibilgailuak kentzea (krokadura edo krokadura eta lekualdatzea): 110,95 €

Gordailura ez bada eramaten eta ibilgailua lotzeko maniobrak hasita badaude, tasa %50ean murriztuko da.

2.- Ibilgailuen gordailua eta zaintza:

A) Lehengo ordu 2ak: Salbuetsita

B) Gainontzekoa 19,28 € ibilgailuko eta asteko

3.- Ibilgailua ibilgetzeagatik: 34,46 €